

# **EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

**2018ko martxoaren 8a**

**EAJ-PNVren adierazpena**

Nazio Batuen Erakundeak 1975an erabaki zuen martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna izango zela. Egun honen kariaz, EAJ-PNVk aitortzen eta aldarrikatzen du emakume eta gizonen arteko berdintasuna -benetako eta eraginkorra- demokraziaren funtsezko balorea ez ezik Euskadiren giza garapenerako eta garapen sozial eta ekonomikorako ezinbesteko faktorea ere dela. Genero desberdintasuna da, bere adierazpen ugarietan, XXI. mende honetan Gizateriak daukan erronkarik handienetakoak, handiena ez bada.

Gaur egun, desberdintasunak ehunka milioi gizakiren funtsezko eskubideak urratzen ditu, bidegabekeria sozial,kultural eta ekonomikoa betikotuz. Hori guztia borrokatzeko, EAJ-PNVk eskubide guztien defentsa, pertsona guztien duintasuna, justizia soziala, elkartasuna eta gizarte inklusiboaren eraikuntza sustatzeko politikak bultzatzen ditu; herritar guztiok, bakoitzak gure sexu,arraza, jatorri edo erlijioarekin, bizitza duin eta zoriontsua izan dezagun, duintasunez eta baldintza berdinak.

Euskadi aitzindaria izan da berdintasun politikak bultzatzeko orduan. Eusko legebiltzarak 2005ean onartu zuen Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Legea, Juan Jose Ibarretxe Lehendakari jeltzalearen agindupean. Lege hark aurrerakada handia egitea ahalbidetu zigun emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean. Lege honen aplikazioari esker eman diren aurrera pausuak eredu eta pizgarri dira gaur, euskal herritar guztiok benetako berdintasun eraginkorrera iristeko falta zaigun bide luzea egin dezagun.

EAJ-PNVren konpromiso irmoa da berdintasuna eta identitatea bultzatzea, elkarbizitzarako proiektu finko bat eraikitzea beharko ditugun zutabe gisa. Era berean egiten dugu esparru guzietan, bereziki lan esparruan, aukera berdintasunaren eta

meritu eta errekonozimendu berdintzailearen aldeko apustu erabakigarri eta lagaezina. Uste osoa daukagu emakumeen ahalduntzean. Enpoderamendu honek pertsonala,kolektiboa eta soziala izan beharko du, eta soilik etorriko da bere autoestimuaren eta autonomiaren garapenetik, bere bizitza baldintzen hobekuntzatik eta bere parte hartze sozio-politikoa areagotzetik.

Horregatik guztiagatik,2018ko martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna delarik eta jabeturik emakume eta gizonen arteko berdintasunak gizarte gisa aurrera egiten, pertsonen autonomia hobetzen, berdinaren arteko eta errespetuzko harremanak sustatzen lagunduko digula, EAJ-PNVk hurrengo konpromiso hauek hartu ditu:

- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna -benetako eta eraginkorra-lortzeko urratsak ematen jarraituko dugu, norabide horretan aurrera egitea ahalbidetuko digun balore aldaketa sustatuaz.
- Esparru publikoan zein pribatuan gaur egun existitzen den soldatua arrakala desagerrarazteko ahaleginak biderkatuko ditugu. Ez dago eta sekula ez da egon ez ziorik,arrazoirik ezta argudiorik ere, lan berdina eginda, emakume batek gizonak baino soldatua baxuagoa jasotzea justifikatuko duenik.
- Behar besteko aldaketak bultzatuko ditugu politikagintzan agintzen duen ereduak gizonezkoen botere eta lidergoan oinarrituta egoteari utz diezaion.
- Hiritargoa berdintasunaren balio sozialaz eta bere implikazioez kontzientziarazten jarraituko dugu, gizarte aurreratua eraikitzera begira.
- Botere publiko guztiekin genero ikuspegia beren politika eta ekimenetan txerta dezatela sustatuko dugu, ekimen eta jarduera guztietai desberdintasunak ezabatzeko helburu orokorra ezar dezaten.
- Bizitza pertsonala, familia bizitza eta lana uztartzea ahalbidetzeko ekimenak garatuko ditugu, ardurakidetasuna uztartze horretarako bide bakarra den heinean bultzatzuz.

- XXI. mende honetan ere emakumeek pairatzen jarraitzen duten indarkeria salatuko dugu. Indarkeria matxista baita genero desberdintasunaren adierazpenik bortitzena eta tragikoena.
- EAJ-PNVko herri kargudunak eta barne kargudunak berdintasunean trebatzen jarraituko dugu.
- 15 minutuko geldiune hauekin, gizartearen aurrean EAJ-PNVk 2018ko martxoaren 8ko aldarrikapenekin hartu duen konpromiso irmoa erakutsi nahi dugu, bereziki lan munduari dagokionez eta esparru honetan ematen den desberdintasunaren adierazpenik bidegabe, insolidario eta kaltegarria salatzeko: soldata arrakala.
- Hiritargo osoa deitu nahi dugu Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Egunaren kariaz antolatu eta egingo diren ekitaldi eta jardueretan parte hartzera

## **Declaración de EAJ-PNV de 8 de marzo de 2018**

Con motivo del 8 de marzo, declarado por la ONU en 1975 como Día Internacional de las Mujeres, EAJ-PNV reconoce y afirma que la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres es un derecho fundamental para todas las personas, un valor esencial para la democracia y un factor clave y necesario para el desarrollo humano, social y económico de Euskadi. La desigualdad de género, en sus numerosas expresiones, sigue siendo unos de los principales desafíos, si no el mayor, que debe afrontar la Humanidad en el siglo XXI.

A día de hoy, la desigualdad vulnera los derechos fundamentales de cientos de millones de seres humanos, perpetuando la injusticia social, cultural y económica. Para combatirla, EAJ-PNV impulsa políticas que promueven la defensa de todos los derechos y la dignidad de todas las personas, la promoción de la justicia social y de la solidaridad, y la construcción de una sociedad inclusiva en la que todas y todos, independientemente de nuestro sexo, raza, origen o religión, podamos desarrollar una vida plena, digna y en igualdad de condiciones.

Euskadi ha sido pionera en el impulso de las políticas de igualdad. La Ley para la Igualdad de Hombres y Mujeres, aprobada por el Parlamento Vasco en 2005 siendo Lehendakari el jeltzale Juan José Ibarretxe, supuso un avance importante en el camino hacia la igualdad de hombres y mujeres. Los avances logrados gracias a la aplicación de esta Ley constituyen un ejemplo y un estímulo para que todas y todos los vascos sigamos recorriendo el aún largo camino que nos separa de la igualdad real y efectiva.

Es compromiso de EAJ-PNV impulsar la igualdad y la identidad como principales pilares sobre los que construir un proyecto sólido de convivencia. Es decidida e irrenunciable también nuestra apuesta por la igualdad de oportunidades, méritos y reconocimiento en todos los ámbitos, de un modo especial en el entorno laboral. Creemos firmemente en el empoderamiento de las mujeres, un empoderamiento que debe ser personal, colectivo y social, y que solo podrá llegar desde el desarrollo de su

autoestima y autonomía, la mejora de sus condiciones de vida y el aumento de su participación socio-política.

Por todo ello, este 8 de marzo de 2018, Día Internacional de las Mujeres, conscientes de que la igualdad entre mujeres y hombres nos ayuda a avanzar como sociedad, contribuye a mejorar la autonomía de las personas, promueve las relaciones de igual a igual y de respeto y nos permite avanzar en democracia, EAJ-PNV se compromete a:

- Continuar dando pasos firmes hacia la consecución de una igualdad real y efectiva entre hombres y mujeres, fomentando el cambio de valores que nos permita avanzar en esa dirección.
- Redoblar nuestros esfuerzos para la erradicación de la brecha salarial tanto en el ámbito público como en el privado. No hay, ni ha habido, ni habrá un solo motivo, una sola razón, un solo argumento que justifique el hecho de que una mujer perciba un salario inferior al de un hombre por el desempeño de la misma tarea.
- Impulsar los cambios necesarios para que el modelo que impere en el ejercicio de la política deje de estar basado en el poder y el liderazgo masculinos.
- Concienciar a la ciudadanía del valor social de la igualdad y de sus implicaciones cara a conseguir una sociedad avanzada.
- Promover que todos los poderes públicos incorporen la perspectiva de género en sus políticas y acciones, de modo que establezcan en todas ellas el objetivo general de eliminar las desigualdades.
- Desarrollar acciones que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral, impulsando la corresponsabilidad como única vía para la conciliación.
- Denunciar la violencia que siguen soportando las mujeres, aún en el siglo XXI. La violencia machista supone la manifestación más violenta y trágica de la desigualdad de género.

- Seguir formando en materia de Igualdad a las personas que ostenten cargos públicos e internos en EAJ-PNV.
- Con los paros de 15 minutos que estamos realizando queremos visibilizar ante la sociedad el compromiso de EAJ-PNV con las reivindicaciones de este 8 de marzo de 2018, focalizado en el mundo laboral y en la denuncia de su expresión más injusta, insolidaria y dañina: la brecha salarial.
- Llamamos a la ciudadanía a participar en los diferentes actos y acciones que se organicen y convoquen con motivo del 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres